

## MARITXU

### MARITXU, NONDIK ZATOZ?

*Estitxu Eizagirre Kerejeta*

2004ko ekaina

“Bertsowoman II” topaketaren harira

Maritxu maitea. Uste dut elkar ezagutu genuenean ez nuela horrenbeste galdera zuri egiteko. Gogoan dut eskolan izan zela, auskalo zenbat urte izango nituen. Zure bertsoa lapurtu eta luzaroan ibiliko nuen buruan. Askotan galdetu dizut kantuz nora zoazen. Orduan jolasa zen eta gaur ez. Gaur, aspaldi egin nahi nizun galdera bat dut lehenbizi zuri egiteko: Nondik zatoz?

Ze jakin badakit ez zarela atzo goizekoa. Liburu artean ibili naiz zuri buruzko zerbaite gehiago jakin nahian eta ez dut libururik aurkitu. Harritzekoa, ehunka liburu aurkitu baititut Bartolori buruzkoak. Une batez ez zinela existitu pentsatu dut, kanta herrikoi bat baino ez zinela. Bai zera! Ez nengoen erantzun horrekin konformatzeko prest. Nire aldetik ere bazen zerbaite jokoan.

Aldizkarietan begira hasi naiz: bertsolarien emazteak... bertsolarien amak... bertsolariak !!! Zure lagun handi batek, Karmen Larrañagak idatziriko aldizkari monografiko bat aurkitu dut, “emakumeak plazara” izenekoa. Haserre egon beharko nuke, baina poztu egin naiz.

Orain behintzat badakit XV. mende inguruan bazinela, hiletetan eta plazan kantuz inprobisatzen zenuela. Baina, etxean egon behar zenuen eta ez plazan kantuan. Debeku eta isunak jarri zizkizuten. Garai hobeak etorriko ziren, ordea. Lore Jokoetan parte hartu zenuela eta Bartoloren aurretik geratu zinela jakin dut, baina badut zalantza bat: Bartolok erakutsi zizun bertsotan, edo zuk erakutsi zenion hari, iturrirako bidea bezala?

Gero monja sartu zinela diote, horri esker ikasi zenuela idazten eta irakurtzen, eta han ere ezin izan zeniola bertsoak egiteko tentazioari eutsi. Pozten naiz. Han ere ez zenuen zuretzako lekua aurkitu, plazarako jaioa zinen zu, ez klausurarako.

Neskazahar gelditu zinen, eta denok dakigu hori delitu larria dela. Garai hartan taloak saltzen aritzen zinen ferietan, beti kantatzeko prest. Batzuek erotzat hartu zaituzte, beste batzuek erdi-sorgintzat... Egia esan, apur bat sorgina bazara, eta horregatik maite zaitugu.

1982an txapelketa nagusian lehen aldiz emakume bat taularatu zenean sorpresa hartu zuen askok. Historiako lehen emakume bertsolaritzat hartu zuten. Guk ere horrela sinetsi genuen. Orain badakit garapenaren mendea, XX. mendea, atzerapausoena izan zela guretzat, eta azken aldera hasi ginela terrenoa berreskuratzen. Ez duzu sinistuko, baina 1993an, bertsolaritzak barrabilekin zerikusirik ez duela esan behar izan genuen. Hori ere nobedadea izan zen askorentzat. Atzeko sotanak izerditan blai jarri genituen.

Bartoloz betetako kuadrila eta bertso-eskoletan eman ditugu gure lehen pausoak, ez dugu zuen eskola ezagutu. Elkarrekin gutxitan kantatzen dugu.

Zenbaiten aldetik bultzada eta laguntza baino ez dugu jaso eta mimatu gaituztela iruditu zaigu, baina... zertarako deitzen digute, genero kupoak betetzeko edo gu garelako? Txarra da neskak garelako deitzea? Egon daiteke neska bat baino gehiago martxoaren zortzikoa ez den saio batean? Normala al da bi nesken arteko ofizio bat entzutea? Norengan pentsatzen du gai-

jartzaileak gaiak jartzean? Zergatik tokatzen zait beti emakumearen papera? Zergatik kostatzen zaie hainbeste bertso-eskoletako neskei plazara ateratzea? Sentitzen duten lotsa, beldurra, paniko eszenikoa... zerk eragiten du? Estilo propioa dut bertsoan edo Bartolo imitatzen nabil? Zergatik entzun behar izaten dut gure inguruan emakumearen arazoa gaindituta dagoela? Gizartea matxista bada, posible al da bertso-laritza kutsatu gabe egotea? Nahi dugun bezalakoak gara plazan? Batzuk bide bazterrean geratu dira... zergatik? Bihar-etzi bertso-afari bat dugunean, laguna haurrekin utzi eta goizaldean itzultzeko gauza izango al gara? Ondokoak onartuko du hori ?

Denboraren mugetatik at bizi zaren sorgin horrek, 2070ean egongo al da amona bertso-laririk? Maritxu, nora goaz ?

*Konbentzitututa nago saio hori egin nahi dudana, konbentzitututa nagoelako dena ez dela denentzat egin behar. Koadrilako afaria egiten dugunean ez dizkiogu inori ateak ixten, baina ez ditugu herrian kartelak zabalitzen ere. Eta amak ulertzen du “eske gaur koadrilako afaia daukat” esaten badiot, ez dela egun horretan nirekin egunpasa etorriko. Nik ez diot ukatu, baina berak badaki noiz ez bere burua gonbidatu.*

*Ez nai z gaitik eskakeatuko. Zenbat afari-irteera-asteburupasa-parranda egiten dituzte bertsoan dabiltean mutilek, euren kasa, neskarik gabe? Beti gonbidatzen al gaituzte plan denetara? Erabat normala iruditzen zait hori, eurek ez dute sexuaren araberako planik egiten, pertsonen arabera baizik. Baina sarri elkartzen dira mutilen artean bakarrik (bertsoan proportzioan ez dago kasik neskarik eta), eta badute lekurik tonu batean eta gai batzuek aritzeko. Eta guk, zenbat plan egiten ditugu tartean mutilik egon gabe? Haiek euren artean biltzea natural egiten dute, guk ez, nonbait, baina antinaturaltasunaren ezaugarri nagusia iruditzen zait, gu arrazoiz bila gabiltzala, justifikazio bila, ta gainera kulpabilidade sentsazioarekin, euren bizkar zerbait egiten ari bagina bezala, lagun denak gonbidatu behar bagenitu bezala.*

*Barnetegiko irakaslearen konplejua dugu: euskara ikasle artean bost egun pasatzerako, barnetegiko irakasleak sentitzen du beharra minutuko 200 hitzeko karrerilan hitz egiten duen norbaitekin topo egiteko. Eta zer egin behar du, akonplejatu, ordu libreetan ikasleengandik eskakeatzen harrapatzen duelako bere burua? Gai zeki egiten al du, bera hasten bazai arrandegiko saltzaileari sekulako kontu pila kontatzen? Inoiz ez zarete barnetegiko irakaslea bezain pazientziatsu sentitu? (Alegia, zeure buruari esana: lasai afari osoa interesatzen ez zaidan konbertsazioan joan delako, lasai era bateko umorea entzuten ari naitzelako, lasai hauekin batere ados egon ez arren arrazoiak buelta ematen hasteko nekatuegi nagoelako, lasai eta pazientzia santua. Ai, noiz topatuko naitz koadrilarekin?)*

*Ez dakit zer espero duzun gertatuko dela saio horretan (agian zerbait hain paranormala espero duzue, hain artifiziala, txaskoa hartuko duzuela), nik lagun arteko saio berezi gisa daukat. Berezia, bertso eskolarekin sutondoan egiten ditugun afari-saioak berezi zaizkidan bezala. Berezia, udalekutako gauak bezala. Berezia, mendira joan eta ilunabarrean ondo egosi gabeko makarroiak jaten diren une hori bezala. Berezia bai, baina ez beste mundukoa. Berezia, tentagarria, motibatzen nauena, zain naukana, baina ez exotikoa, morbosoa, idealizatua, errebindikatiboa, egin beharrekoa. Berrit diot, berezia bai, baina ez beste mundukoa. Kontua da, estraterrestre sentitzen garela horrelako zerbait planteatzean. Ta ez dakit arrazoiak. Hipotesia:*

*Axkixuko asteburu-pasarako<sup>1</sup> intuizioari segi genion, bagenekien gai horren atzean bazegoela zerbait, baina ez genekien zer... Noski, bertso munduko nesken zerrenda bat egin, eta ezagutu ere egiten ez ginenok e-mailez hizketan jartzea “artifiziala” izan zela, edo “antolatutakoa”, ez berezkoa. Bai, asteburu pasa hartan elkartu gintuena bertsoa eta emakumetasuna izan zen.*

---

<sup>1</sup> Bertso munduko emakumeen lehenengo topaketa, “Bertsowoman ekimena”, egin zen 2003ko abenduan Azkizun (Zumaian)

Baina orain, zer? Ez dut uste topaketa hura alferrik joan zenik. Kontzienteki igual ez, baina gai hori barruan darabilgu bueltaka, egosten. Desde luego, zerrenda honetako jendearekin topo egitean ez dut “neska bertsozale” soil bat ikusten. Une ederrak, barre mordo bat eta teoria interesanteak aportatu dizkidan bat detektatzen dut. Ta orain afari-tertulia-saio eskusibo bat egiten badugu, (nik horrela bizirik behintzat), egiten dugu jende hori interesantea iruditzen zaigulako, zerbait aportatzen diguna (ez neska delako). Zerbait aportatzen diguna gai bati buruz (besteak beste), ados. Interesantea, gai horrekiko sentsibilidade bat duelako (besteak beste), ados. Baina zer, gaia ere ukatu behar dugu, ala?

Mutilekin ere gai hau landu behar dela? Oso ados. Baina batak ez du bestea kentzen. Eta bata noiznabi egin liteke (beti eurekin gaude). Juxtu gure artean ez gara biltzen.

Bertso jardunari dagokionez, niretzat plazer handia izan zen Donostiakoa. Izan zen jarri amildegiaren aurrean, eta saltia. Izan zen, “aber, begira ondoan zein ditudan, ta hauekin betikoak ez du balio. Betiko rolek ez dute balio, badakitelako ‘ama txintxo-monjitak’ ere bere malezia duela, ‘ligona arrasadora’k ere bere konplejuak dituela, ‘etxeko andre sufrida esklabizatu’ baten aspirazioak sarri ez direla eredu garri... Betiko esloganek ez dute balio hauekin, Axxixun eslogan denei egurra eman eta gero... Aber, utzi betikoa, eta orain zer? Zein dira nire biziera, ta pentsaerarentzat koherente diren rol eta esloganak?”

Ta hori beti egin behar genuke, bale. Baina beti ez da erraza. Nire ustez, plaza batean zailagoa bertso-eskolan baino. Bertso-eskolan ezagutzen zaituzte, eta ez diozu bertso txarra botatzeari, edo bidean gelditzeari beldurrik. Gure afari horrek, niretzat, gehiago du bertso-eskola berezitik, plazatik baino. Zuen artean ez diot beldurrik “aukera/denbora” erimatzeari, (parra ta dena egingo dut kantatzerakoan), horrekin saiatzen banai bestera iristen.

Mutilekin afari berezia egin litekeela? Bale. Euren bertsokera oso egina dago, lanik handiena izango dute desegiten, eta batzuk-batzutan basi dira horretan. Guk ez dugu zer deseginik ere. Eta egiten, niri behintzat, gehiago lagundu dit gure artean biltzeak. Ulertua sentitzen zara, eta ez duzu gauza bakoitza esplikatatu beharrik.

Zergatik ez gara gau batzutan gure artean bilduko, gure arteko bazile modu bat, hitz joko batzuk, gai batzuk eta gaiak lantzeko bide batzuk probatu ta lantzeko? Hasteko, esperimentazio hori egitearen gozadagatik bakarrik. Eta gainera, horrek lagunduko digu plazan kantatzea tokatzen zaigunerako. Beste gau batzutan (orain astero egiten dugun bezala) mutilekin kantatuko dugula? Dudarik gabe. Eta mutilek interesik badute, propio geratuko garela horrelako afari berezi batzuk egiteko, eurek ere euren rola hautsi dezaten? Primeran.

Ojo! Ez nabil “nesken” bertsokera roxaren bila. Ez dakit zer kolorekoa aterako den. Baina neutro, rolik gabeko, sexu definiturik gabeko, eta “unisex” motako bertsokera sortu nahiko bagenu ere, nire ustez, neskek gure artean biltzeak lagunduko liguke horretan. Leku berera iritsi behar badugu ere, ez garela leku beretik abiatzen, ez ditugulako traba eta ezagarririk berak.

Konklusioa:

Niretzat afari hori da...

Nire izatearen parte bat (emakumetasuna den ezkutuko lanbro indefinitu hori), oraindik ez dudala ezagutzen eta zer landu asko dudala dakidan honetan, justu alde hori garatzeko asko aportatzen didan jendearekin egingo dudana gaubela.

Afari horretara joango naiz, gogo bizia dudalako, bilduko garen jendearekin ulertua sentitzen naizelako nire izatearen parte horri dagokionez, eta horregatik, bilduko garen jendearekin nagoenean ni sentitzen naizelako bertsoan, eta gauza ederra delako sentitzen diren bertsoak kantatzea.

*Badakit afari hori esperimentu bat dela, eta horregatik, aurretik ez dela ezer espero. “Aber, zer ateratzen den...” da. Sarasuak zioenez, “eta gaiarki ateratzen bada, ez zaigu ajola jada, epaileak hil ditugu”. Afari horretara goaz inolako “mailarik” eman beharrik gabe, edo “araurik” bete behar izan gabe, edo “gaiarki egiteko beldurrik” gabe. Poto ere lasai asko egin genezake. Errimatu gabeko bertsoa bota ere bai.*

*Afari hori ezin da gaiarki atera, ez dagoelako saio hori epaitzeko sistemarik, ezta beharrik ere. Betiko epaitzeko arautik kanpo ibiliko bagara, oso estilo diferenteak aterako dira, bakoitzak berea aterako du, eta ezin da esan bertso hau “ona” edo “txarra” izan den, berea zen, eta kito. Ezin da esan “gaur balako ondo aritu da” eta “bestea gaiarki”, hau eta hau entzun ditut, baiarik.*

*Horrelako afari batean, geroni harritzen gara geure burua bertsotan entzutean, zer esaten ditugun jabetzean – intsentsuak asko lezake-. Sekula esan ez genituen gauzak ateratzen baitira. Eta ateratzen badira, zerbaitegatik da...*

*Baina oraindik, ez dakit zergatik.*

---